

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

266n. zenbakia
urrilla 2001



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



UNBE MENDI ITXAS-ONTZIA

1959N URTEKOA

BILBAO-KO EUSKALDUNAN EGIÑA

BIZKAIA'N % 42 ONTZIAK EGITEN ZIRAN

E U S K E R A Z A L E A K

2001 - 2002 IKASTURTEA

OGEI TA AMALAU GARRENA
BIZKAIERAZ
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN
Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN
Ordaña: 20.000 PEZETA
Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK
COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO
Asierea: URRILLAREN 8AN

34.² CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACION

Dias: LUNES, MI RCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES
Horas: MANANA, TARDE Y NOCHE
Curso completo: 20.000 PESETAS
Inscripciones: EUSKERAZALEAK
COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TEL FONON 423 53 22 - BILBAO
Comienzo: 8 DE OCTUBRE

LAGUNTZAILEA

COLABORA

The logo for 'bbk' is displayed in white lowercase letters on a black rectangular background. The letters 'b', 'b', and 'k' are bold and sans-serif. The 'k' has a horizontal bar that extends to the right, ending in a small square, resembling an equals sign.

GURE LURRA ETA GU LURTARROK

(IV): **BIZKAI-LURRA** ARGIRIAN

Bigarren aldia amaitu dogu eta orain irugarrenera (Era tertziaria) sartzen gara: Gugandik urrago dagoalako obeto ezagutu geinke: Mendi-kate aundiak zelan sortu diran obeto esan geinke: Alpeak, Himalaia, Uralak, Karpatoak, Andeak... emen sortuak dira, Auñamendi bera be bai. Olako mendi-barruetako pizti arrituak asko agertzen dira eta gaurko piztien antzekoak dira. Orregaitik esaten jako aldi oneri errodunen (mamiferoen) aldia. Mendi oneik ez dira izan ainbestean txautuak, erosionatuak, eta orregaitik daukagu erreztasun berezia aztertze-ko.

Bizkai-lurra aztertze-ko ez daukagu beste aldirik aldi onen lenengo zatia baiño. Lurra oraindik itxaspean dago lenengo zati onetan baiña azkenerantza lur-ikara mendi-sortzaille bat izan zan eta itxaspeko lurrak gaiñera atera ebazan. Aldi oneri eozeno esaten jako, egunsentia esan gura dau gerkeraz, ortxe sortzen dalako gure lurra. Or sortutako mendirik aundiena Oiz mendia da eta orregaitik eragin oneri Oiz-eragiña esango dautsagu. Oiz-mendiak 1.041 m. dauz. Eragin onek lurralde zabala artzen dau. Asi Punta Galea n eta Ermura arte eta zabalera 3 km. koa da, luzera 45 km. koa. Nummulites deritxon piztitxua dago or mendietan arri biurtuta. Pizti onek nummus edo txanpon-antza dauka, neurria 2m bat eta iñoz 12 m be bai. Orreik osotzen dabez, zenbat eta zenbat bear diran, Punta Galea'ko karetxeak.

Are-atxak be asko dagoz arlo onetan eta aldi onetakoak, aizeak txaututa geienak. Orrelakoak dira Urdu-liz'ko are-arrobiak. Arrobi onek edertasuna kentzen dautso Santa Maria mendiari.

Goizalde deritxon eozeno aldi onetan asi zan Auñamendi sortzen orain 50 milloi urte dirala. Auxe da ba gure lurren adiña.

Eragin onek goratu ebazan ondakiñez osotuak ziran lurpeko lur aberatsak eta gure lurralde au naikoa goian geratu zan. Orregaitik aurkitu leiz koralak Anboto-gaiñean.

Akitan-mendiak eta Ibairu-mendiak askoz antxiñagokoak dira, lenengo aldikoak. Eta oneik, ez dakigu zergaitik, alkarregana urreratu ziranean, gora jaso eben gure itxaspean egoan lurralde aberrats au. Orregaitik dira gure mendi-kateak lerro orreri gaiñera datorkozanak (perpendikularrak). Lerroa Akitaniatik ibero-aldera edo Asturi-aldera. Gure mendien egoaldea beti dau leunagoa iparralde baiño: Auñamendik egoa leunago dauka eta kantaurik bardin, esaterako Barazar'en edo Leire' n.

Sakon-uneetan zingirak geratu ziran esaterako Trebiño'n edo Miranda' n edo Baldegobia'n edo Billarkaio ta Medina de Pomar' en. Baiña aldien joanean legortu egin ziran eta gaur erri orreik dagozan leun-uneak geratu dira. Atlantik itxasoak Landak estaltzen ebazan. Bizkai'kolkoa gaur baiño askoz zabalagoa zan.

Euskalerraren itxas-ertza ez zan gaurkoa lakoa: Lur-musturrak aundiagoak ziran eta ibaiak itxasora sartzen ziran tokiak askoz zabalagoak. Gero toki orreitara ondarrak jausi ziran (sedimentaziñoa) egin zan eta apurka itxas-ertza gaurko lekura etorri da. Olatuak be orretan bere lana egin eban lur-zatiak alde batetik bestera eroanez. Errekak ostera ondartzak asko ekarri eben eta alboak betetu egin ziran, gaur daukaguzan lez geratzeko, baiña ekintza ori aurrera doa, astiro-astiro.

Olazar'tar Martin'tek.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eigu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Bailia aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

GAURKO JOKABIDEA EUSKALERRIAN

Ez daust bildurrik emoten azterketa au lau aizetara zabal-tzeak etsaiak bere gogoetan artuta, gure aurka ibiliko dauela-koan. Neure ustea alderantzizkoa dalako. Alde batetik: «Euskaldur•ak erri-bat garalako Ludi onen arrazoizko egitan ». Beste aldetik: «Espainolak eta Frantzezak, euren arrazoiz-kanpoko izakeraren asmakizunean, ez dabelako on-artzen gure izatea edo Nortasuna, eurak izateko.

Eurak, txikerrak garela esaten dabe. Eta guri ZER!, ez gara ba"? Ludi onen izaerak ez dira neurtzen Nortasuna dau- kien gauzetatik ba? Orregaitik, Mundu onen arrazoi bidetik neurtu egin bear dira eskubide eta beartasunak, Nortasunaren ardurak diranak, Nortasunaren artean osotu bear diralako. Baiña zoritxarrez, Norkeria agertzen jaku, eta OR! agertzen dira gure arteko borrokak; bai etsaiaren aurka, bai gure artean. Eta oso gogorrak gaiñera.

Etsaiaren aldetik: «LA UNIDAD DE DESTINO EN LO UNIVERSAL» eta «POR LA GRACIA DE DIOS» izkera goratuakaz izkutuko sineskerietan sartu gure gaitue, eta orre- gaitik Aznar'ek esaten dauan lez «PUEBLO INMADURO» gu garalakoan euren «DESTINO'RA» sartu arte. Baiña estal- garri oiek banan-banan kentzen dautzeguz... eta Zirilloak egite eben ber-bera da: berenak batu eta besteenak ere bai ganbara bete arte. Azkenean erdiak baiño geiago usteldu dai- tezan; eta ez bakarrik aldamenekoak goseaz geratu, bai bera ere gosetuta txarto zainduagaitik. Bai -ta beti ere keiñadura bardiñekin aldameneko jazarraldiari, Zirillo baiño askoz makalagoa dalako, burua zartadaka apurtu dautselakoan.

Gure arteko borroka ere, bardin edo antzeko bat da !: azkarregi, edo beti lasterka askatasuna lortzeko gabiltzalako, askatasunak berak! bear dauan egokitasun gertakuntza barik. Eta ori askatasuna lortuta ere, betiko borrokaren bidea da ! Dana dala, gure gaurko eztabaida onen, askatasuna lortzea

atzeratu egiten dauela bai !, eta gure artean egokitasun txarra, urduritasuna, bata besteen ikus-eziña eta abar asko sortzen dauana ere bai !!, danok batera joan ez egitearren. Eta orrek, ziur gauza bi oneitatik bat esan gura dauela, biak ez-ba dira: «edo kasko-ariñak garela» zati aundi baten beintzat, edo «ELBURUA» ez dala bardiña danonatzat.

Eta emen benetan konturatu bear gara, GURE ERRIAK bizi ontan EUSKAL -SINISMENA aurrera eroateko, beti! elburu bi sakratu lez daukazela: bata «JAINKOA» eta bestea «LEGE-ZARRA».

JAINKOA: azken baten BERAGANA joan bear dogula- ko, BEREN LEGEA, Ludi onek oñarrituta daukana, ondo edo oker beteta.

LEGE-ZARRA: Erri zarra izateagaitik ondo baiño obeto ikasi dauelako.

Izadi onek daukan LEGEAZ OIÑARRITUTA joan bear dauela aun-era. Antziñan konturatu zalako, ERAK ezberdiñak izateaz-gain, amai-bakoak izan leikezana, beti! sustraiekin, Ludi onek daukan OÑARRIEKIN bideratuta izan bear dira- lako gure ekintza guztiak; beste guztia bide maldatsu-bat bes- terik ez dalako: burua, eskuak, anak apurtu eta eriotzak egi- ten diran lekua baiño ez.

Euskaldunak gogaketa sakon-sakon bat egin bear dogu, danok batera ELBURUARI begitzeko, ekintzan alkarrekin joan gaitezcan gure EUSKALERRI MAITE au ASKATU gura ba-dogu.

Albo baten itzi daiguzan besteen arrazoiak, gu gureakaz joan bear geralako, eta LEGEZ bete daiguzan gure ardura nagusiak.

«ASKATASUNA BEREZ AGERTUKO JAKU»

ATUTXA'tar PAUL

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

BILBAO
-D-IA
AI INTAM I INTC -
LAGUNTZAILLE

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idaz- kerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabe- nak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larrea- tegi, 14, 2.ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillean.

Sariak lau izango dira:

- 1.ª 50.000 pezeta
- 2.ª 40.000 pezeta.
- 3.ª 30.000 pezeta.
- 4.ª 20.000 pezeta.
- 5.ª 10.000 pezeta.

Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKARAZALEAK

BIZIA USTEGABEA DA, jOKATU EGIZU

Ez nintzan ta ezer ez nenkian, gaua zan guztia niretzat, argi gabeko jlluna. Betiraunen bat egoan nire barri ekiana ta Bera, ixilik, egoan lurbira osoan bizia zabaltzen. Giza seme-alabak bialdu zituan lurrera ta aren pentsuan egoan milliñoiak lagunen bizia. Senar emazte bik na; izanda, eldu nintzan lurrera, ta onein ardurapean egoan nire bizi arazoa. Egille nagusia bat da ta beste lagun guziak Aren otsein ta lagun dira seme-alaben bizitza barrian.

Jazokun bat da nire bizia. Egille on batek ta aren morroi-mirabe biak baietza emon eben ta ondoren eguzkja ikusi neban ta lagun aurkitu nituan ni maitatzen aita ta ama. Au da gizakumearen mundura eldukerea. Zorionekoa ala, zelakoa izango dan norberak erantzun bear. Ortarako artu ditugu argitasuna, borondatea ta zentzuna, iru almen aundi dira gure bizitzaren zoria lortuteko. Gizona beraz, ez dator utsik amaren sabeletik.

Lenengo ikasgaia au da... Nora etorri nintzan...

Munduak egal asko ditu ta nire zori ustegabea Bizkaira eltzea izan zan. Gure Euskalerrriak mueta, era askotako inguruak ditu ta euretarike baten mendi arte ta errekonduan izan zan nire jaiotza, beti arpegia garbituta ibilteko tokian. Gurasoak, anal arrebak ta abereak izan nituan nire etxe-lagun onenak. ta onen urrengo auzokoak, beti aida ta o entzuten solo batek bestera.

Bakezkoa izan bear eban lanak ta bakezkoa alkarren arteko bizitzeak. Ori zan gizontasunak ta batez be krjstautasunak eskatzen eban bizikerea. Egilleak ez eban sortu Qizadia alkarren artean burrukan ta odoletan ilteko.~Itzez ta egitez maitasuna aldarrikatu eban, ga;zkj egilleari on egiozu, gorrototzailleari parkatu egiozu, txarto-esaka dabillena bedeinkatu egizu, matrail baten joten zaituenar; bestea eskeiñi egiozu, ori zan Jaungoikoaren Semeak lurrera ekarri eban jakituria ta maitasuna.

Euzko baserriak danentzako ez ziran naiko. Lau, bost, sei seme-alaba sendi bakoitzean ta bat bakarrik bear kanpotik etorrenagaz alkartzeko ta beste guztiak nora bialdu, edota eurekin zer egin... Ez zan edozelako buruko miña ez guraso ta ez seme-alabentzat.. Bizja ederra dalarik, nun aurkitu bizi-bidea... Amaika mutil zar ba zan baztarretan... Kanpaja otska ilbilten zan ingurukoe; aditzen emonez, batean errekaldekoea, bestean mendibaltzekoea, urrengoan zuluetako mutil zarraren illobiratzera deika.

Bizj guztja lanean urratuta iñoren menpean. Nik ez nenkian nun egozen guztiak, baiña, gure jzkuntzak ez eukan soiñu ederra sail orretan. Zerbait izate-

ko jaiio ta taju orretan bizi bear... Bizitzan berezko legeak eskatzen eutsen bizi-bidea ezjn lortu ta ori, olan, izan bear dabenik, barruak ezin etsi, lurrak astindu ta seme barrien poza ikusteko jalo zanak. Amaika bizitza urkulduta joan zjran gure basetxieta-tik.

Gure baserrietara bagiraturuz, euzkoen izkuntza arrigarriak arrituta nauka. Jakituri aundiak dagoz munduan pisj, kmj, argi, osasun arazoetan, baiña guztien oiñarri legez izkuntza jarriko neuke, gizonak abotsa bear dauta bere barneko argitasun, olde, jakituri, amets guztiak eratu ta urkoari agertzeko. Orain millak eta millak urteetara atzeruntz begiraturuz, otso-mendi aldi areitan gizategia sortu ta eratu zan.

Berezkoa zan ta alan bearrez, euzko gizadia sotu eben azur itxuraz, odolez ta izkuntzaz alkartasunez beterikoa. Mendiak, arkaitzak, zelaiak ta itxasoak lagundu eutsen euren izakerea eratzen. Arkaitz sendoak, itxaso indartsuak ta lur mamintsuak Egillearen laguntzaz erri zentzundun bat sortu bear eben, biotzez sendoa ta buruz argi-bidezkoa.

Gaurko euzkotarra, zabaldu egizuz begi orreik ta ikusi egizu arbasoak emon euskuen alkar ulertzeko itz bidea. Munduko jzkuntzalari aundiak seigarren maillan jarri dauskue gure izkuntza. Lurreko jzkuntza guztien jakituria, edertasuna, apainduria, alkarkidetasuna aztertu ondoren, euskera gorengo tokietan, seigarren maillan, bera bakarrik, jarri dauskue ain puntu goresgarri-an.

Gaur noz arte egon bear ete dau loak arturik... Gure lur, mendi, itxaso, arkaitz ta gizadiaren edertasunari uko egin bear ete dautsagu... Gauza onak, bertan bera, itxjta, arbasoei uko egitea ez da bidezkoa, euskaldunarentzat ez da zillegi gurasoen jakituria, itza, egia saltzea. Ori dagianak egin dau berea, aita ta ama saldu ditu.

Eusko baratzen larros bat dago usaiñez atsegiña, orriz zoragarria, margoz dirda;tsua... Orixe da zure jzkuntza, euskera, baratza erdiko lora bargingabea.

Erri zurrak bere nortasuna agertu bear dau bizitzako arazo aundietan. Nundik nator, nora noa, nork sortu nau, zer egin bear dot. Onek dira adimendunaren egin-bear aundiak, egiz jakinbearrekoak. Gizaldien gizaldietan bide ortatik joan da euskaldun jende parte nagusia. Berrogej, irurogei edo larogetabost urteko bizia ez da ezer, buruan daroagun bizi egarri ain sakona asetuteko.

Beste alde batetik personearen izaerea ain du;nak, argiz eta maitasunez osotuak, beste elburu illezkor bat eskatzen dau. Lur zaleak diño, lurra, dirua, ara-

GOGOETAK

gia naikoa ditut bizia gozartuteko. Nik ez dot beste ezer bear, nire goitik iñor ez dago, au da zentzu bakoaren amesa, gogoa, jokabidea.

Lengo aldietan euskotar askok lurrez goitik jarri eben curen elburua. Gurutze bat dogu gure goiburu... Emen dago giza barnearen eskabidea, poztu ta asetu leiken Jaun ta Jabea. Gizadiaren Jabe orrek ezin dau iñor ikusi kateipean, espatapean, zapalduta gosez ilten. Munduko gizarte auziak arduraz beterik dauka ta gizonen dei egiten dautse lagunaren arteko nekea, miña ta negarra gizartetik kendu dagien.

Au gizartetik kendu nai daben gaitza ta anaitasunari dei egiten dautso beartsuei lagunduz, bizitzako arazoak argitu ta gosedunari zentzuzko lana ta ogia emonez bizi-bidea zuzentzeko. Onek dira siñismenak eskatzen dituan lanak, pozak eta itxaropenak. Ta euskaldunak on eretxi eutsen jokabide oneri lengo aldietan. Or dagoz euzko gizonak, curen fedea, erri bat bere izatasunean indartu nairik, zorioneko izan dedin katei barik, gose barik bere lurraren gaiñean. Zuzentasuna, egia, lanbidea, anaitasuna dira siñismenaren ale eder, frutu zuzenak.

Munduari ezerk on egin bear ba dautso, oneik dira gizadiaren ongille benetakoak, zuzentasuna, maitasuna, laguntzea, bata-bestearen lur eta esku-bideak egi bidez ikusi ta lotsaz artu guztion Egillea dogun Aitaren izenean Aita barik eta lotsa barik ezin giñaike bizi. Munduko jarduerak, arrikadak, ilteak ondo agertzen dabe baieztapen onen egia. Anaitasuna bear dogu aita batengandik sortzen dan maitasunaz ta egiaren indarragaz. Emen-dik agertuko da lurrean, gizarteak bear dauan egizko bakea.

Alanbearrez edo jakituriz munduan gizataldeak sortu izan dira aldien joan-etorrian. Batzuk aundiagoak, beste batzuk txikiagoak, baiña beti-bere,

aundiak aundi izanik, ez dabe ondo agertu curen jendez geiago izatea. Sarri, larregitan, gosekillak izan dira, beste jende talde batzuk curen azpian artu naikoa ta zoritxarrez artzailleak. Aundizalekeri ori, bai persona legez ta bai erri legez, bear dan eran ez da izan epaitua gizonen artean. Gizona bildur izan da otsoaren aurka jokutzen ta otsoak bere lorrinkeriak egin eta erri txikiak sarri odoldu ditu ta aren ondasunak xurgatu.

Erri guzti onein artean euzko jendetza mendi alde ontan agertu zan. Bere izakera barria sortzea lortu eban gorputz tankeraz, odolez, izkuntzaz, giza tajuz ta gizontasunez. Iñork bear ba dau, zuk merezidu dozu erri edo enda egokiera bat izatea. Zagozen lekuan argi egiten dozu, zure semeak ortzian izarrak legez argi egiten dabe edozein tokitan lurraren gaiñean.

Zure asmoak iñoz, ez dira izan ondamuzkoak ez zapaltzailleak. Zeure gizatasunak agintzen eutzun eran, zuzentasuna, egia ta bakea izan dituzu gidari ta millak urteetan zapaltzaillea agertu arte, zeure buruaren jaube izan zara, lurak landuz askatasun garbian. Lanak ez zaitu iñoz bildurtu ta lurrean, itxasoan ta burnigarbian zure gogoa ondo itsatsita itzi dozu. Zure izena or dago lur, mendi, itxaso ta burni-miñetan urre-gorritzko izkiekaz siñaturik.

Emen agertzen da euzko endaren dardarea. Gure arbasoak ezerean arrokeri ustel barik saiatu ziran biziari arpegi emoten, seme-alabak azten ta ezitzen, euretariko asko ta asko munduaren argi ta gatx izan eitezen. Aitorren seme-alabak ibili dira munduari argi indarra emoten zuzentasunaren bidez bizi bideak atondu ta konpontzeko anaitasun giroan. Au da gaur be euzkotarrak bere barnean daroan amesa ta on egin naiaren gogoa ta bidea.

PAULIN

EUSKAL ASTEA (BILBAO'KO UDALAREN LAGUNTZAZ)



BILBAO
-31 (INAAI | LNTI)
LAGUNTZAILLE

Euskerazaleak Alkarteak, urtero legez, Euskal-Astea eratzen dau. Ona emen gaiak eta gaunak?

Tokia: Euskerazaleak'en egoitza. Colon de Larreategi 14, 2^a, eskoia.

Egunak: Azillaren 26'tik 30'ra.

Ordua: 8 retan.

Gaiak: 26, astelena: Bertsolaritza. Legarreta Asier.

27, asteartea? Globalizaziñoa. Atutxa Paul.

28, Egusatena: Amesen ildotik. Zubiri Iñaki.

29, Eguena, Lege zarraren berezitasunak. Olazar Martin.

30, Orixer'ren esukaldunak. Murua Jose Mari

EUSKERAZALEAK

LAUAXETA EZIN ITZALI

**Gauan illero ikustenda
Begi-zuri eder goitzalla,
Beren begiratasunaz
Zidarrez itxasoa jantzitenda.
Orrelan egunero argitasuntenda
¡EUSKAL-ERRIA!
Dagonian abertzaletasun gogoia.**

Jarreille
Ayacucho, Perú.

AITZOL EZIN-ITZALI

Ayacucho. Pení. Izangodea irurogeta sei edo zazpi urte joanitzanla Eibar-era, entzunaibelako zelan izangozan olaerriazkar aretan, elkar aurrestean estabaia, bi artatsauestabaidakari artean, bata itztegikari ta idazle (euskeraz ta erderaz), bestea erdelduna (ez-euzkeltzalea); Gizarteko zuzenbide (erderaz = QUESTION SOCIAL) ondoren, auterkitzan.

¿Zelan izan-zan alkaraurrestea?

Itztegikari biak, izanarren aurkakoak, ekinzean agurka euren artean ta an euzen danairi, adeitasunaz.

An geuzen-arte, batzuk uztenebein, elkar aurreste a izangozala itz-izu-ikarakoa, amaituteko burrundaba suzkoan. Izan leske, batek baño geiagok ori naiebella.

Itztegikari biak, izanarren aurkakoak, baikotzak azalpenen aditzeratuko beren uztekoa, erderaz.

Baño bi areitako-arte, euzkeltzaleak, erderaz, argitu-eben: «Ez dagola gizartean auzi bat bakarrik, baizik beste geiago..., ta onein artean: erriko NARBERERABAGIENA, jau dalako ondapekoa! - Baikotzentzat baktotzena»

¿Zer erantzun eukieben?

-IXILLTASUNA; ez euzkeltzale artean, abestuebeñak: «Azkatatzen Eguzkea basotik urtenda...»:

Aitzol, apaiz jaindunetik, abertzale zintsutik, ori ikazineben, Eztabai a, bakian amaituzan, adeitasunaz.

Euskeraz idaztendot erderaz entzunebena.

Gero, zari oldoztunen, NORBERERABAGIA dala ondapekoa, ekiteko GIZARTEKO ZUZENBIDEA.

Ori zan neretzat an geiago argituzana eztabai aretan.

¿Zelan erabagizan Lur-ean NORBERERABAGI-ori, 1936-erditik aurrera?

Ikuzikozan, izanzanaz «ekiña» (amaiketako bat bezela) zoritxarreki, bakarrik Ibero-lur-adarrean; jarraituteko jarraituzanlez: Europan, Aprikan, Asian, Ozeanian, sutu-il ta Lur-eko ikaragarri-negargarri, zoritxarreko izuan tzerkean.

Lenengo izanzianak ezaten, nai-ebella Lur-gustea, atzenian ¿zertarako? Ezateko ¿Kaput!

Atzenian POLONIA-K ainbeste bidar zatitxuta zapalzaletatik, eldueben NORBERABAGIA, edo ASKATAZUNA. Txopin-ñek ez ebena ikuzi, jatenian POLONESA-z artituzentzen, polakoak ainbeste nai ebena; jaskatazuna!

Larrei-belu ikusteko geratuziañak bizirik, jakiteko, obe-dala bizitzea baikotza, baikotzen etxean, dalako ondapeko gizar zuzenbide onena, danentzat: Baikotza beren etxean; baño ondiok, gaur, dagoz batzuk, ez dabeñak ulertuten ori.

Arrotzak ez dabe aztubear beinbe, joatendean bestebatzun LURRERA, doiazela bakarrik LAGUNDUTERA, baño ¿beinbez AGINDUTERA bertakoairi!.

Ori ezin dabenak ulertu, itauneiela MAXIMILIANORI «EMPEREUR de MEXICO», zelan izanzan Queretaro-koa.

EZ DAKIEINENTZAT

AYACUCHO izena dator Peru'ko izkuntz batetik, KECHWA-tik, onelan = AYA (gizon ilda), ta KUCHU (tokia). Euzkeraz: iltokia.

Edesti-zerbait (ikastetxetako)

AYACUCHO'N, 9-12-1834'an, izan zan eraso-aldi erabagiteko PERU'n NORBERABAGIENA (erderaz, AUTODETERMINATION AUTODETERMINACION).

Peru'n askatazuan indartusan Amerika-egoaldeko guztien askatazuna.

Eraso-aldi aretik askatuzian:

PERU, BOLIVIA, ECUADOR, COLOMBIA, VENEZUELA.

Erriaundi-eder onein ASKATZAILE-buruz izanzan: SIMON BOLIVAR, ASKATZAILE'a (erderaz EL LIBERTADOR, LE LIBERATEUR, THE LIBERATOR, DAS BEFREIER, IL LIBERATORE...), guztiz maitatua.

Danon artean dakue: 4.693.425 km², ta 106 millo (g.g.b.) bizilariak.

Gaurtik, ezatendotzuet: AGUR-irakurleairi.

JARREILLE
Perú, Ayacucho.

LEGE ZARRA (FORUA) V: EPAIKETAN ZIURTASUNA

Askasuna da giza-eskubideen artean geien aldarrikatzen dana, baiña aldarriak gitxi balio dabe, bakoitza izan daikezan erasoetan babestuta ez ba'dago. Orixe da arako «habeas corpus» deritxon anglandarren eskubideak diñoana (1.669n. urtekoa): Baitua dan edonor erregearen aurrera eroana edo diru-aurreratze bat eginda askatua izateko eskubidea. Eta bizkaitarren foruak «habeas corpus» orrek baiño ziurtasun aundiagoak daukaz.

ESPETXERATZEKO AGINDUA

Orduko baitzailleai (prestamerua ta merinoa ziran oneik) debekatu egiten jake iñor baitzea, aurretiaz epaikariak orretarako baimena emon barik, gaiztake-ria, egiten dagoala arrapatu ezik. Ori zan foru zarraren agindua. Baiña Foru Barriak geiago diño: epaikariak berak be espetxera iñor ezin leikela eroan aurretiaz ogei ta amar egunetan Gernika'ko zugazpean foru-deia egin barik. Dei au eskribau baten aurrean egiten zan zugazpean eta agiria idazten zan. Deia baitzekoa zanaren parroko atean ipinten zan, domekaz, meza-nagusi-orduan, eta deitua bera aurkeztu eitekean, berak nai eban espetxean ogei ta amar egunen barruan, eta epe ori bete-arte iñork ezin eikean baitu. Epea amaitu eta agertu ez ba'zan, esibarruan lez geratzen zan eta edonork eukan eskubidea baitzeko.

Foru barriak dana onartu eban baiña lapurretak ziranean foru-deia egin barik baitu eikela esan eban: Lege ori foru-barruan aundiena ta onena zala, epaikari ano, zorrotz eta itunai eta ariñegi jokutzen ebe-nai galgea ipinteko. Beti beteteko agindu eban.

Foru Barriak foru-deia eskatzen dau edozein bizkaitarren aurka jokatzeko aurretiaz bete bear dan baldintza lez, baiña salbuespenak zabaldu egiten dauz: gaiztake-ria egiten arrapau diranak, erbestekoak diranak, sorgiñak eta aztiak (au aldi aretako ardura okerra zan) eta emakume bat izorratzen ebenak.

BESTE EPAIBIDEKO ZIURTASUN BATZUK

Ziurtasunik onena, oiñazeak debekatzen dauzana da. Eta, gaurko lege askok diñoena diño askoz

aurrera: Bere burua zaintzeko epaigaiari emoten jakozan ziurtasunak dira. Lenengo zabalkundeari buruz. Orduan epaiketa-barriak isillean eukiten ziran Europa guztian eta orrelan epaigaia babes barik geratzen da, bere aurka zer dagon jakin barik. Bizkai'ko Foruak auxe agintzen dau: Epaigaia agertzen danean, berari emoteko epaibide osoaren aldakia: bere aurka esan dana, lekukoak esan dabena eta izenak. Salakuntza egiten danean, gaia agertuko da, baiña izenik esan barik. Gaiztake-ria egin dala ziur jakin-arte, ezin leike iñor salatu. Gaurko lege askotan be ez da agertzen olako garantirik. Gauza bategaitik salatuak izan diranak, ori erabagi arte ezin leikez beste salakuntza bategaz salatu.

OLAZAR'tar MARTIN'ek.

AZKENENGO ARRAIÑA JATEN
DOZUNEAN, AZKENENGO LANDA-
REA IGARTZEN DANEAN,
ORDUAN, BAI, ORDUAN JAKINGO
DOZU DIRUA EZ DALA JATEN.

AMERITAKO INDARREN ESALDIA



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

DAB, DATORREN AUDIO BARRIA

Orain arteko irrati sistemak, bai FM bai AM, era guztietako interferentzien menpean egon dira. DAB sistemeagaz amaitu dira olango arazoak. Azken belaunaldiko irrati teknologiaren ganean berbetan gabilz: irrati digitalaren ganean. Onegaz batera, CD kalitatezko seinalea, askotariko erabilerak eta interferentzia bako emisinoa lortzen dira.

Artikulu onen izenburuan agertzen dan berba jokoari jaramon egiten badeutsogu, bidean jator-kun teknologia barriaren ganean (beste bat) berbetan gabilzana konturatuko gara. Digital Audio Broadcasting edo audio digitaleko irrati ilabete onetan abian imini eta tarteko epean mundu osora zabalduko da. Orain dala bi edo iru urte asi ziran probak egiten mundo osoan eta, gaur egun, gitxi gorabeera 230 milioi pertsonak jasoten dabe aren seinalea, baina orain asi eta 2006. urtera bitartean guztiz indarrean iminiko dabe.

Baina zer da DAB dalakoa? Ainbat eratan zabaldu leiteken irrati digitala da: emisinoa bai satelitez bai kablez egin leiteke, eta, orduan, ez dau ezelango interferentziarik artuko, ezta autoan goazanean be. Orrezaz ganera, audioaren kalitatea ezin ohea izango da. Betiko antena arruntaren bitartez kalitatezko CD soinua entzungo dogu. Baina orreek ez dira DABK eskaintzen dauzan barrikuntzarik nagusienak. Izan be, barritasun nagusia bestelango informazioa erakusteko aalmen eta interaktibitatean datza.

IRRATI ALKARRERAGILEA

Irrati digitalak soinua ez eze, testua eta irudiak be bialdu leikez gure etxe edo autoetako irratieta-ragino. Alan bada, gure aparatuetan bestelango informazioa be jaso aal dogu: eguraldiaren iragarpenera, trafikoaren egoera edo egunkarietako

azken barriak irakurri geinkez berebileko irrati-an, baita entzuten gagozan abestiaren berbak be. Azkenik, Internet-eko edukina be arrapatu aal izango dogu geure irrati-an artez-artezean.

Baina gure irrati-a irrati arrunt lez erabili gura badogu, sistema onek obakuntzak dakarz: DAB irrati-a erabiliz, ez dogu ibili bearko entzun gura dogun irrati-a topetan, pantailako menuan agertuko jaku-eta une orretan entzun leiteken irrati-en zerrendea eta entzuten asteko naikoa izango da entzun gura doguna aukeratzea. Interaktibitatea benetako aukerea dan lez, asi dira pentsetan irabazi komertziala zein izan leiteken: erabiltzaileak gura dauan era aukeratutako irrati programak, etab. Ordaindutako zerbitzuak, orreek guztiorreek, jakina!

Irrati eta antzeko tresnen ekoizle nagusiak asi dira teknologia ori onartzen daben aparatuak egiten. Daborduko, aukera osoa daukagu: etxerako irratiak, baita walkman erakoak be.

Josu Waliño
(Elhuyar aldizkaritik)

ZUGATZAK BOTA EZKERO, URA
TA TXORIAK **BADOAZ**, ZUGATZAK
SARTU **EZKERO** URA TA TXORIAK
EKARRI EGITEN DIRA.

R. CORONIU

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

NAFARROA ETA ERRIOXA ALDETIK

Noz-bein oparitxo bat bear dogula -ta (alangoak dira batzuetan aitzakiak), Olazar'tar Martin'eri esan neutson, Nafarroa eta Errioxa aldetik ostera bat egin bear gendula. Martin'ek baietza emon ondoren eta bion erdian bide-mapak kokatuta: Tuter, Kaskante, Fitero, Zerbera, Kona-go, Biko'ko Santutegia, Arnedo eta or ingurutik dagozan erritxoak ikusi gura ebazala esan eban, eta Agorrilla'ren 28'an goizeko amar ta erdietarako ipini genun ospatzeko ordua ta egun ori.

Tuteran geratu giñen leenengoz, oparitxo bat artzeko eta bide batez erria ikusteko. Erritik ibili giñanean, Eleiz nagusi edo Katedralagaitik itandu gendun, eta bertara eldu-giñanean, Lekaide'en edo Kolejiata Erromaniko-Gotiko bitxi eder baten aurrean aurkitu giñan. Oso polita bera kanpo aldetik, baiña barrua ikusteko ateak itxita egon ziran lez, ez gendun aukerarik euki.

Erritik ibili giñanean, etxe ta kale barriztuak bai barrizten ere asko ikusi genduzan. Itzartzen dabizela esan leike ango mugi-aldiagaitik. Diru-arloan ere, konturatu gintzazan arro-arro bizi dirala, gure oparitxoaren ordaintza ostetik. Poztu giñen kaleetako izenetan Gudal-Nagusien eta Espaina'ko aipamenik ez egotea, eta bai benetan poztasuna Euskaraz berbetan entzun gendunean euren batzar-tokian nai ardotezia izan eta kalean ikurrin batzuk. Badago bai!, Tuteran zeozer irikitzen dabillena Euskal etorkizunerako.

Arratsaldeko ordu biak eta erdietan eldu giñan Fitero'ra eta «Bar restaurante Casa Blanca'n» bazkaldu gendun. An ibili zan 87 urteko gizon bat danak agurtzen, baten bategaz berba egin-gurean eta gure aldameneko mai baten jesarri zan; antza, bere ezagun bategaz. Euren maitik, nungoak garien itandu euskun; Martin'ek: bera abadea zala eta biok Bizkaitarrak garela esan ondoren, akaita artzen genbiltzala gure maira etorri ziran. Ez naz gogoratzen euren izenakaz, bailia 87 urtekoa Naparra eta espainolista sutua zan, bestea, azpitik Euskaraz unetan egiten ebalako beren jakituria erakutsiz, ez gendun bera beartu gura eta alkar-izketa guztia leenengoarekin izan zan. Berak, gudaren bitartez berriz erabagi bear zala ostera ere gure arazoa, eta guk ezetz, mai inguruan txolkada urrupatuz arrazoirra joan bear gendula. Txolak, berak ondaindu ebazan, eta urten gendunean, agur-bero ta samur bategaz itzi genduzan alkarizketan, jate-etxearen aurreko aterpean. Itzi genduan bai!, zetaz berba egin.

Konago, Errioxa'ko erritxorantza joan giñanean, goialdean gaztelu bat ikusi gendun eta bertara joan giñan; an ibili zan artzain bateri galdetu geuntson gaztelu ura zer izan zan, eta Luna'tar Albaro'k egindakoa zala esan euskun. Ez dot uste egia danik, leenengo Nafar-Errioxa'ko lurrean dagoelako eta baleiteke Gaztelarren aurka mugak zaintzeko eginda dala; beste aldetik, Luna'tar Albaro Aragoien jai() bazan ere, Gaztelar oso-osokua zalako.

Andik, ikuspegi aundia eta zabala dago, baiña ikusten dana eta Kalaorraraiño Errioxa'ko bidetik ikusi genduna ez zan guretzat atsegiña; guztiz errekarriko igaduran, basa-mortu bat lez dagoelako.

An eta bidean Kalaorratik etxerantza etorri giñanean, gure alkar-izketaren itaun bakarrak ainbesteko alperkeria ikusiz: «Baiña zelan gureko dabe baldar auek euria egin dagian, zugaitz landarak ez ba-dabez landatzen, euren mingain egarritzuaz, Ludi onen lege bereziari ez badautsie eskatzen ur-geza euriaren bitartez jauzi daiten? Emen ikusten da, asko izan direla lur onetatik gauza asko artu dabezanak, lurrari ezertxo be ordaindu barik. Zer egiten dabe Nafarroa eta Errioxa'ko Aldundiak? auek izan ziran.

Egia da, Euskal Errioxa Nafar lurrak, euskaldunen eskuetan egon bear direla, bereziak berezitasuna gorde eta zaindu egiten daualako; baiña arrotzak eta arrotzaren eritzikoak, mozkiñaz bakarrik arduratzen dira, badakiela-ko egunen baten «ALDE» egin bear dabela, eta orregaitik ainbesteko lapurkeria.

Saiatu gaitezan ba, gure Nortasunaren ardurak berrezkuratzen, Euskalerrri zoragarri bat ikusteko, eta Europa'ko izar aundiena izanda, benetako bizi-ordez-kari eder bategaz gozatu daigun.

OR! EUSKALDUNEN INDARRA ETA KEMENA
EUSKADI ASKATZEKO.

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 2001'an AGORRILLA'ren 30'an.

DENPOREA IRAKASLE ONA DA.
BAIÑA IKASLE GUZTIAK IL EGI-
TEN DAUZ

ZUGAZTIAK DIRA GIZAKIAI EGIN-
DAKO EMOITZIK ONENA

ZIZERON

GUDAK ZERGAITIK?

Sarritan eta sakon aztertu bear dan arazoa da gaurko gizartean sortzen diran gudaldien zioa edo oiñarria. Zergaitik egiten da ainbeste guda edestian eta lur-zabalean?

Gure edestia, zori txarrez, guden edestia dala esan geinke: Antxiñako Sumerioak beti gudan ibilli zirala, erromatarrak ainbeste gudaldi izan ebezala, erdi-aroa gudaz betetik agiri dala eta geure gizaldia, joan dan XX gizaldia guda garratzez ondututa geratu dala: Lenengo ludi-guda, bidarren ludi-guda, gure artean 1936n. urtekoa, eta inguruan beste guda asko.

Eta edozein gizalditan, XX gizaldian bertan, gudak bazter guztietan sortzen dira, batera.

Orregaitik, arazo au apur bat aztertzeke ondo datorku gaurko galdera au: Zergaitik egiten dira gudak?

Abertzaletasuna?

Antxiña ez dala, adiskide batek esan eustan: Guda guztiak edo ia guztiak abertzaletasunak dakarz. Eta lenengo begirada baten ori ikusten dala dirudi.

Baiña beste alde batetik gauza bera begiratuta, beste au be ikusten da: Gudak sortzen dabezanak ez dira aberri txikiak, oneik euren burua aldeztu baiño ez dabe egiten geienetan. Gudearen sortzailleak beti izan dira laterri aundiak, bai antxiñako ejiptoarren edo sumertarren aldietan eta bai erdiarogan.

Abertzaletasuna gudara sartu -bearrean aurkitzen ba'da, beste batek guda sortu daualako izaten da, aberriren bat zapalduta dagoalako. Abertzaletasuna berez baketsua da, baiña ez kili-kili egin maitasun orreri! Ez zapaldu aberriak dauzan giza-eskubideak! Bide onek atzerago edo aurrerago guda ekarriko dau.

Ez ekin, sarritan jasoten dan lez, aberriaren izkuntza kentzen, ez ekin aberriaren lanaren ondorena okerkeriz kentzen... or gogorrotoa agertzen da eta nondik datorren jakin barik etorten da guda.

Laterri aundiak, zapalkuntzaz kentzen dabezen eskubideak barriro euren lekura croan guda dirala

ikusten dabenean, orduan bai guda egingo dabela. Indartsuagoak diralako, irabazteko bidea ikusten dabelako.

Ondasunak?

Ondasunak munduan txarto banatuta dagozela ondo dakigu: Laterri aundi aberatsak aberri txikien edo ez ain txikien kontura aberastu dira eta aberri oneik zorpera sartu dabez. Bizi-eziñik dagoz. Aurre-rapena ezin dabe lortu. Orra or beste guda-iturri bat.

Asi baiño ez da egin gose dan jentea Europa'ra etorten, batez be egoaldetik eta Irugarren Mundutik. Eta ez dauke zio faltarik orretarako! Lurraren fruituak, lenengo, lurtar guztiok bizi gaitezen dira -ta. Baiña ori lortzeko eragozpenak ipinten ba doguz, orra or gudabidea.

Eta ez dogu aitzu bear gosez bizi diranak geienak dirala. Orregaitik esaten izan da «beillegien arriskua» daukala munduak

Baiña ez da beti laterrien aberastasuna edo txirotasuna, banakakoak be errudun izaten dira ondasun asko pillatzen dabelako. Ba-dagoz banakakoak laterri oso batzuren beste ondasun daukenak.

Erljiñoa?

Begiratu apur bat Israel' en edestia: Ejipto'n zpal-kuntza izan eben eta Jainkoak dei egin eutson Moises'eri erria andik aterateko. Guda barik! Faraon'ek itzita! Baiña gero eurak lurralde baten jabe izateko guda asko egin bear izan eben.

Biblia'n guda oneik Jaungoikoaren aginduz egin-da agertzen dira. Jaungoikoa agertzen da filisteo edo palestindarra lurra kentzen eta Israel'darra emoten.

Ori orrelan izan ete zan? Jaungoikoak ez ete eban-zan maite filisteoak?

Bibliak agertzen dauana, Israel'ek sinisten ebana da, baiña Jaungoikoa fede ori baiño arago dago. Gaur be Israel'tarrak esan leikee: «Lurralde au Jainkoak emon dausku». Baiña palestindarrak erantzun leikie: «Ori zuen Jainkoak egingo eban, baiña

GIZARTEA

gureak ez, gureak geuri emon dausku» Eta Jaungoikoa guda ori baiño arago dago. Guda ori gizonen arteko kontua da.

Ipar-Irlanda'ko gudeari be olako usain bat ikusten jako gaur be, edestia oiñarri dala. Baiña ez katolikuen eta ez protestanteen Jaungoikoa ez da guda-zalea, bake zalea baiño. Guda gizonen arteko pekatua da, pekatu aundia.

Eta Koran'en agindua?

Islandarrak eurak ikusiko dabe zelan ulertu «guda Santuaren» agindu ori. Edestian bete egin dabe iñoz, geure auzoraiño edo gure erriaren barreneraiño be etorri jakuzan-eta. 700 urteko gudaldia izan zan erantzuna, azkenean euren lurraldera joateko, baiña milenio oso bat odolez gorritu-ondoren.

Jainkoaren guraria ez da «guda santua», «bake santua» baiño eta Mahoma'k beste era batera ukusi ba'eban, ez da aitzu bear antxiñako igarleak ikusten ebena be ez zata dana egia izaten, ori guzurrezko igarleak alde batera itzita.

Erlokjiño-gudak Euskalerrian?

Karlos'tarren gudak izan eben barruan erlejiño-jokera bar, gero abertzeletasunera be igaro zan «Jainkoa ta Lege zarra», baiña barru-barruko zioa lege zarra edo foruak izan ziran.

Alderantziz jazo zan 36'ko guda aretan. Beste batzuk etorri jakuzan Kurutze-Guda iragarrita, Jaungoikoa gure auka egoala agertzen, baiña or be beste zio batzuk egozan: Nagusikeria alde batetik, zapalkuntza bestetik.

Emen be Kurutze-Gudak irabazi eban, baiña alpe-rrik, urteak igarota barrero lengo arazoan daukagula mundua. Erri-agintaritzza edo demokrazia nai da, baiña errien eskubideak zaindu barik. Arazoa bizi-bizi dago.

Guro gudak ez dira izan erlejiño-gudak, errien askatasun-gudak baiño.

Orduan zer?

Erlejiñoa ez da kendu-ipiñiko gauzea. Beti daroagu aldean, guda egiten danean be bai. Baiña erlejiño orrek bere lekua dauka. Ortik ez atera. Eta gudan be lagundu egingo dautzu, zuzen jokatzeko. Orrelan gure gudariai!

Guda guztien sustraia binomio baten dago: Zapalkuntza-Askatasuna.

Binomio ori askatzen edo ateraten ez dan artean, beti gagoz gudarako bidean: Kendu zapalkuntza, emon askatasuna.

OLAZAR'tar Martin'ek

* * *

LAN-URTE BARRIA

Alde guztietara begiratu ezkerro, giro barri bat ikusten dogu:

Giro barria eguratsean: joan dira bero aundiak eta epeltasuna etorri, eta ugaritu dira euraldiak.

Giro barria lanean. Len itzi gendun lekuan antxe dago lana eta udako atsedendaldia gozatsua amaitu ondoren, emen goaz betiko lekura.

Giro barria gure gazte ta umeen artean. Udaldian or ikusi doguz sarritan zer egin be ez dakiela, baiña orain etorri da deia. Ikasturte barria.

Giro barria eleizan bertan be. Udan mezak baiño beste asko ez da egin, baiña orain asi dira ikastaroak, katekesiak, ospakizunak...

Giro barria millaka ta millaka sendietan. Orain udan baiño alkartuago bizi da, baiña bakoitza bere zeregiñetara joanda. Azkenean, gabeen etxean alkartzeko. Eta ez guztiak.

Giro barria jolasetan. Beti izan dogu futbola gure telebistan, baiña oraindik aurrera geiago. Gaiñera igandeetan olako jokoak ikustera joan bearke da.

Giro barria errigintza edo politikan. Gauza asko geratu dira auteskunde-ostean berbaz iragarrita, orain bete egin bearke dira Lendakariaren egitarau eta jokoak. Ez udan errigintza aitzuta egon dalako. Or izan dira arazo batzuk. Baiña, zalantza barik, ba-daukagu giro barria.

ZER

URKIOLA ARRIGARRI: V ELEIZA

AUNDI BAT

LENENGO MILLE-URTEA

Aspaldion nabil ni, emen gure inguruetan eta millagarren urtea baiño lenago, Eleizea zelan egoan jakingurean. Eta auxe da ikusten dodana: Orduan eleiza aundirik ez egoala, baseleizak edo ermitak bai asko, auzo-une bakoitzean, eta baseleizearen ondoan freila, serore edo ermitaño bat. Baiña ezin dot argitu onek zer egiten eban. Antza dagoanez kanpaia jo otoitzerako egunean irutan eta illetak egiteko, arrentzak edo errogatibak be egiten ziran baseleiza ospetsuetara, baiña igandeetan zer? Ez dakigu. Au bai, eleiza oso apala zala, aundikeri bakoa. Baseleiza politak egiten ziran arri ondo landuakaz, baiña itxikiak. Lekaide baneditarrak ziran aurduradun. Lekaide zister'tarrak etorri ziren.

Millagarren urte inguruan agertu zan aundikeria, Baseleiza batzuk ospetsu biurtu ziran eta eleiz barri aundia egin eben, Konpostela'koaren antzera. Baiña oraindiño gitxi. Uri aundietan egiten dira eleiza gotikuak baiña auzoetan len lez edo eleiza barri aundiak parroki-antzera artuta.

* x *

ELEIZA AUNDIAK

XVI gizaldi-inguruan asi gintzazan kristiñauok errietan eleiza aundiak egiten. Ez ete zan dirua Ameriketatik etorri zelako? Askok ziran ara joaten ziran euskaldunak eta andik aberats etorten ziran ainbat. Errietan gosea egoan eta eleiza barria egitea, erriari laguntzea zan. Zein izan zan ondorena? Erritarrak etxe txiroetan bizi ziran artean, erriaren erdi-erdian arrizko eleiza aundiak eta ondo egiñak ikusten doguz, emen eta urriñago. Or galdu gendun "artalde txikia" "pusillus grex" izatea. Eta jokaera ori geroago eta aurrerago joan zan. Oraindiño XIX gizaldian eta joan dan ogeigarrenean aundikeri ori or agiri da. Baiña 1968.n urte inguruan, eta Batikano'ko II Batzar Nagusiaren ondoren lez, eleizeak bere burua aztertu eban eta aundikeri ori alboratzen alegindu.

Adibide batzuk: Bilbao'n 1950n. urce inguruan izan zan Eukaristi Batzar Nagusiaren ondoren iza-

teko eleiza aundi bat egitea erabagi zan, Korpus izena daroan eleizea, baiña egiten asi eta amaitu barik geratu zan. Dana saldu eta eleiza apalago bat, gaurko Korpus parrokia egin zan. Gasteiz'en aundikeri-pekatu bi egin ziran, bata gotzain-eleiz edo katedral barria. Ez zan bear, lengoa naikoa zalako, baiña aundikeria. Or geratu da erdi egiñean, apalago amaituta. Bestea gure "Gasteiz'ko Seminario"a. Bear zan. Abadegai asko egoan. Pedro Asua abade arkeitektoak asmau eta egin zan. Etxe aundia, sendoa, egokia, berrogei urtean abadegaiz beterik egon zan 600 abadegai, baiña orain or dago alperrik, zegaz bete ez dakigula. Or sartzan ete da Urkiola'n egoteko zan eleiza aundia?

ELEIZA OSOAREN BIURTZEA (II BAT)

Joseba Legartza'k idatzi dauan "La sinfonía incompleta de Urkiola" liburu ederra irakurri dodanean, aurrean esandako gauza guzti orreik etorri jataz gogora. Urkiola'ko eleizea gure eleizen edestian eredu eder bat da eta Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusia ezkeron egin dan biurtzea dakarsku gogora azkenean. Garrantzi aundia benetan Kontzilio orrena!

Urkiola'n lenengotan baseleiza txiki bat egoan. Bear ba'da garrantzi aundikoa, egoan tokian egoalako eta Anboto'ko Mari'gaz be zer-ikusia eukalako. Or baseleiza asko izango ziran, baiña 1646n. urtean egin zan lenengo eleiz aundia, baseleizea egoan lekuan. urte orretako bagillaren 5n. egunean bedeinkatu zan eleiza barria eta 1653n. urtean egin jakon eleizpea inguruan erremesen aterpe izan zeiten.

Baiña urreratu gara ogeigarren gizaldira, aundikeri barriaren gizaldira eta laster sortu zan eleiza aundi bat egiteko asmakizuna, abadeak eta gotzaiñak guztiak batera zirala. Geroago ta jente geiago dator, eleizea zarra da, aundiagoa bear da...

Urkiola'ko abadea zan Tomas Goxenzia ta Elexpe'k izan eban ames ori eta 1896. urtean Kuba'ko guda amaitu zanean, Gasteiz'ko Gotzaiña D. Ramon Fernandez de Pierola etorri zan erromes

Urkiola'ra eta gogoz artu eban eleiz aundia egiteko asmakizuna, naizta berak Padua'ko Antonio kontuan artu eta San Anton Zarra ez gogoratu bere dei zabalean.

Eta asi ziran eleizea egiten, eleiza benetan aundia. Asieran jenteak diruz ondo erantzuten eban, baiña gero gudaldiak etorri ziran, munduko biak eta Espaiña'koa, eta etxegintza gelditu egin bear izan zan. Orrako batzen zan dirua Gasteiz'ko Seminarioa ta Gotzain-Eleiza barria egiteko joan zirala be zabaldu zan, baiña ez, diru gitxi batzen zan. Gudak iturriak itxi ebazan.

Or daukagu egiten asita eleizea, zati bat egonda be bai, altare-inguru ederra amaituta, baiña olako eleiza aundiak egitea ez da orain onartzen. Zer egin?

URTENBIDEA

Antonio Perez de San Roman abade arkitektoari ezarri eutsoen egitasmo barri bat sortzeko ardurea. Ez zan erreza etxegin onen zeregiña: Altara-ingurua eginda egoan, baiña eleiza aundi baterako eta erritarren lekua be an egoan, baiña oso txikia eta aunditzeko uste barik. Zer egin? Antonio'k itzuli osoa emon eutsan egitasmoari: Altarearen lekuan korua eta korupea ipiñi jentearantzat eta erri-lekuan altarea. Erabagi ausarta benetan! Arkuak eskatzen daben jokabidearen aurka, baiña baten batek erabagi bear eban eta ontzat artu zan jokabide ori.

Gero obeto egokitu dira altara-ingurua eta len atzeko ormea zana. Orma onetan Saibigain'go bonbaketa gogoratzen dauan leiarki eder bat dago eta onen gaiñean santu biak, Gipuzkoa'ko abade jakituna dan J.M. Zunzunegi'k emondako aolku oiñarrituari jarraituz. Eta onen gainean gauza arrigarri eta eder bat, Jose M^a Muñoz'ek asmau dauan mosaiku ederra. Gauzak egokiro curen lekuetan ipinten ona izan dan Rapel Mentxakaren laguntzaz.

Amaitzeko gogoratu daigun nok eta zelan egiña da mosaiku eder ori orman.

Abade-etxearen atzekoaldean, ortuan, aterpe txiki bat dago eta antxe antolatu zan tokia Peli Fernandez de Romarategi laiko misiolari izanak lan egiteko. Mosaiko onek 170 neurkin lautu daukoz eta berau egiteko bear ziran gaiak Italia'tik ekarri bear izan ziran. Orretarako ormearen ondoan andamioak ipiñi bear ziran eta gero ormea bera gertatu eta alboak egokiro margotu. Zer agertzen dan mosaiko orretan? Ona emen: Lenengo orma aundi

ta motza arindu egiten dau, eta, gero, inguruko izadia eta bake-giroa agertzen dau, azpian dagoan Saibi-gaiñeko bonbaketaren irudi gogorrari urtenbide eskintzeko; inguruko izadia dan lakoa agertzen dau; giro orretara sarzen dira santu biak, lau urtealdiak agertzen dira eta azkenean zabala dan bizitza barriaren irudia ekintzen dau.

Ona emen lan eder au egiteko artu ziran egunak: 1996. urteko urrillaren 9n. egunean andamioak ipiñi ziran eta eleizea utsik itzi eta eleizkizunak alboko eleiza txikian egin. Azillaren 5n. egunean mosaikoaren milloika zatitxuak eleizara eroan ziran, curen arloetan kokatuta. Laguntzailleak bear izan ziran ondo ipinteko.

Gauza guzti oneik edestirako oso jakingarriak dira eta irakurleak zeatz jakin nai ba'dabez, Joseba Legartza'ren "La sinfonia incompleta de Urkiola" liburuan aurkituko dabez.

Oraindiño zerbait geiago idatziko dogu Urkiola'ri buruz gure ZER onetan.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZUGAZTIAK ERRIAK BAIÑO
LENAGOKOAK DIRA.
BASAMORTUAK ERRIEN OSTEAN
DATOZ.
ZUGAZTIAK GALTZEA GIZONEN-
TZAT ZIGORRA DA.

CHATEAUBRIAND

IRU GAUZA DAGOZ ESKUTATU-
EZIÑAK: MAITASUNA, KEEA ETA
GANBELU-GAIÑEAN DOAN GIZO-
NA.

ARABIAARREN ATSOTITZA

ITXAS-ONTZIGINTZA (V) EMOITZAK ETA ETORKIZUNA

Bizkaia'n euki doguzan ontzi-olak eta España'koak alkarren parean ipiñi ezker, ara zein dan ondorena: 1964n. urtean gureak ziran 26'tik 7. Beste urte batzutan be antzekoa da maillea, 1973n. urtera arte. Gitxi gora-bera egiten diran lau ontzietatik bat izaten da Bizkaia'n egiña. Or ikusten da gure ontzi-olak garrantzi aundia daukela laterriaren barruan eta Europa' n. Eta egin-dako ontzien zenbakiari edo guztien artean daukezan tonal begiratu ezker, antzeko zenbakiak urteten dau: Laurena da Bizkaian egiten dana.

Bederatzi dira Bizkaia'n daukaguzan ontzi-olak eta zortzi Bilbao'n dagoz, bestea Gernika-aldean.

Bilbao'ko erreka-ondoan dagozan ontzi-olak eragozpen bat dauke, ontziak itxasoratzea ez dala erreza. Dana dala, astean ontzi bat baiño geiago itxasoratzen da eta ez da izaten eragozpen larregirik. Egin be itxasoratu leikezanik aundienak baiño ez dira egiten. Ezker-aldean Olabeaga, Kadagua ta Sestao'koa dagoz eta beste aldeko ertzetik ur-urrean geratzen da itxasoratzen dan ontzia. Eskoi-aldetik ontzi-ola bi dagoz eta oneik lantegiaren eta ibaiaren bitartean Bilbao'tik Areetara doan bidea dauke, orregatik bidea itxi egin bear izaten da. Gabaz egin bear izaten dira itxasoratzeak. Ruiz de Belasko Ontzi-olak itxasoratzeak alboz egiten dauz. España'n ez dago beste olakorik eta mundu guztian be gitxi.

Ikusi dogu ba, orain artean zelako garrantzia euki dauan Bizkaia'n ontzigintzan, baiña itaun bat egin bear dogu idaz-lan au amaitu baiño lenago: Ba-dauko etorkizunik gure ontzigintzak? Iraungo dabe gure ontzi-olak? Igarle-larla beti da arriskutsua, baiña sartu gaitez lan orretara. Gaiñera ez da aitzu bear ontzigintzak ikutu aundia artzen dauala inguruan sortzen diran arazoetatik, politika, langintza ta ekonomi-arazoetatik. Sarritan gaiñera urriñeko lurraldeetan sortu diran arazoak izaten dira, esaterako arrorio-iturri barri ta aundi ba agertu dala edo Suez naiz Panama'ko ontzi-bidea itxi egin dala, edo laterri-arte guda arriskua dagoala... olako edo antzeko arazo bat

da naikoa gure etorkizuna bide barri batera sartzeko.

Gure ontzi-olak ez daukue emoten olak eurak zabaltzeko itxaropen aundirik, guztiak dagoz beste lantegi batzuren artean eta kale-arte. Orregatik gure ontzigintza aundiagotu bear ba'da, beste toki batzutan lantegi barriak eginda izan bear ko da. Bear ba'da Gernika'ko ibai-ertzak izan leitekez toki egokia, baiña zori txarrez erreka onek sakontasun gitxiegi dauka. Portu Nagusiaren inguruan bai ipiñi bear da ontziak konpontzeko toki egoki bat. Or bear ba'da ontzi-ola egoki bat ipiñi leike. Gaiñera orain urreratzen diran ontzi aundiak ezin sartu leiz ibaiaren bidetik barrurago.

Europa Batuak be ba-dauko zer-ikusia. Europakide diran beste laterri batzuk be ontzi-olen lana nai dabe eta irabazbide ori kideko guztien artean banatu bear da, burdingintzagaz egin dan antzera eta lurgintza ta aberegintzagaz edo arraintzagaz jazo dan antzera. Bide orretatik urrats asko emon dira eta gure ontzigintza urritu edo arriskuratu egin dabe.

Ontzigintza Bizkaiarentzat irabazbide aundia izan da. Eutsi dagiogun, ez dagigun galdu. Gaiñera antziñatik izan gara bizkaitarrak itxasgizon trebeak, Kolon baiño lenago eldu ziran gure bale-zaleak Terranoba'ra, Ameriketara. Gure trebetasun oneri eutsi egin bear dauetsagu, bai arraintzan eta bai ontzigintzan.

OLAZAR'TAR MARTIN'ek.



BIZIA ZORIGAITZA DA, MENPERAT EGIZU

Aita on utsa danak ezin eikian zorigaitztorako bizia sortu ta giza seme-alabak berez dogu gure bizitzan batbestearen arteko kurutzea, trabea ta zoritxarra sortzea. Aita batek esaten ei eban... umeei nai dabena egiten itzi bear jakela ta erdiak inguru ardau-zale urten ei eutsoen. Beti, edaten ta txingar arpegiagaz gogoaren indarra galdua ta gorputza mirriztuta pozik ebiltzan. Nai dana egiteak dakarren ondoren samiña.

Naikeriaren griñak ez dauke personearen errukirik ta ondatu artean ez dautse itziko bakean. Ta gero aita begira esanez... nik atara juat artaldea... Lenengo zoritxarra izan leiteke, zelan izan bear dan, zer egin bear dan ez jakitea. Pertsona-eraz baiño pisti-eraz bizi izatea atsegiñago sarri askotan. Berantz deika dagozan griñak be euren indarra dauke ta sarritan eskubideak eskatzeko.

Samingarria da baiña bizitzan ba dira era ortako jazoe-ra lazgarriak. Ona ta txarra zer diran bereiztuteko argi almenik ez dago nai dabena egiten itzi ezkerro, norberarentzat obeagoak izango direlakoan, ume errukarri batzuk urtetan dabe gizadiaren aurrean. Zoritxarra gurasoentzat, zoritxarra gizadiarentzat ta azkenez ezbearrik aundiena txurruipiñarentzat.

Gurasoak zer asmetan ete dau norbere semea era orretan ikusigaz... Berbarik ezin egin, ibili ezin, zentzuna galdua ta dana norbere erruz danean... Jazoeira onek auzokoei berba egiten dautse. Zentzundun gurasoentzat, egiz, biotz barruraino doa, semea erdi illik antzo baztarren lotsagarri, albo alboka kalean agertzea... Jokera onek gure gizarte ta sendien bizia ez dan edertuko.

Umien zoritxarra gurasoei deika dago. Esnatu zaitse dirautse ta seme-alaben miñak ez zagiezela atsipetu. Ume maiñatsuak, beti, bere buruan zorakeriko gurari bat darabil, berak ona zer dan ikusten ez dauana. Baiña oroz goitik nai dauana da nagusi urtetea. Ta ain zuzen be, orixe da menperatu bear dan griña, gizontasuna izan dedin gizonetan ta gizatasunaren bidez gizarte zuzena ta atsegiñagoa lortu.

Alan-bere mundua miñetan negarrez dago, alderdi guztietatik agiri dira estenak zirika. Auzoetatik pistiak basoetan aurkitukeran, burrukea ziurra da, lenengo begiradea, bigarren sama biurkera ta irugarren adarkadea ta su ta ke bata bestearen aurka, il edo bizi, odolak zoratu arte.

Amaika bider ikusi izan ditugu bei burrukak... ta iñun aurkitu ezkerro etxekoa ez danik, nai ta naiez, indarrak negurtu bear. Zergaitik dan, baiña pistiak pistikeri ori egin barik ezin egon.

Personea ba adimendun pisti bat da. Ta pisti izateak antza, adimenak baiño indar geiago dauka sarri askotan ta ortik datoz ondoren latsagarrienak. Gizona era askotan ikusi izan da baztertuta, zapalduta ta orren ondoren gosez lotsatuta, giza bizitzan makilla ezbaridiñak izan bear balebe legez.

Lenengo zuzenbagekeria izango litzake Aita baten seme lez ez ezagutzea, giza bizitzaren sort iturria bat bera izanik. Jokabide gaizto onek alderdi bi euki leikez: lenengo ta bein gizonaren alperkeria, lan egiterik ez nai izatea ta orren ondoren datorren atzerapidea, bai giza adimen ezikeran ta bai solo, mendi ta lantegietako gora-beretan.

Zuzenbagekeriaren beste sustrai bat, sarri, age rtu da munduan ta bere izena ez da edozelakoa, min asko emon ta negar samiñezkoak eragin dituan nauskeria. Besteak gitxiagotzat artu ta arrokerian itsutu ta indartzen joan dira giza bakar legez sarri askotan ta giza talde legez ez. gitxitan.

Ori dala ta, gizadia ez dabil Egilleak nai leuken eran. Personearen nortasuna nai dan, jakituriz, esikuntzaz ta personeak berez daukan norabidean, ondo zuzenduta. Personeak ez dauka ba, bere bidetik urten ezkerro, ez bakerik ta ez pozik. Ta bide ori galdu ezkerro, gorrotoa burrukea ta ondamentia ondoren berezkoak dira... Ta nora goaz argia, zentzuna ta gizontasuna bertan bera itzita...

Zuzenbagekeria gure izatearen aurka dago zuzenbagekeriaren eskubiderik iñork ez dauka. Zuzenbagekeria maxuagaz eratxi egin bear da. Zuzenbagekeri guztien buru guda da. Gosearen ondoren onek egiten ditu lurreko triskanzarik aundienak. Gudaren asmoak, aldien aldietan, ikusi danez, aundikeria ta arrokeria ezpaten puntetan ibili dira. entzutea nai ta baita bere norberak legez pentsetan ez dabena zapaltzea ta ondoren lur ta itxaso zabalen jabe izatea.

Iñork alkartu ete leiz aundikeria, norberekeria, gosea ta eriotza guda baten oiñean... Ta zer esan, iñoren lurrak artzea ta ortarako ainbeste lagun iltea norbere griñak aseztearren... Illak itz egiten dabe... Gudarik ez geiago... Aundikeriak, lapurretak, sustraiz, betirako deuseztu egin bear dira ta lana sortzeko ardurea artu, mendiko giza-seme-anaien artean lana, anaitasuna ta bakea loratu daitezzen.

Ona emen nekepean ta odol artean il ziranen deadarra. Egizko deia da ta entzun bearrekoa.

INDURAIN AURRELARI ERRIMEA

Izen aundia. Lan asko egin ta zintzo jokatu ondoren lortzen dana. Egia da, gizonak, berez, arturiko almenak bear ditu bizitzako arazoetan zerbait egin al izateko. Baiña orregaz batera norberak be gizon zurra ta langille errimea izan bear dau. Indurain egunetik egunera joan zan bere arin-aringarako trebetasuna agertzen.

Lasterketa asteko garaia da. Esamesak, eretxiak ta gogoak ezbarðiñak dira. Ainbatek irabazle barri bat nai leuke, burruka izan dedin. Prantzezak Indurain ondo ikusten dabe garailari ta Etxabarrik bere mutilla oroz goitik ikusi nai dau aurtent beintzat. Eta ez dau txarto uste. Lenengo eguna bakarreko eguna da ta Migelek ibillaldi ondoren, elastiko oria jantzi dau egun birako. Karrera guztian erabiltea lar kantsagarria izango litzake ta egun batzuetarako itzi egin bear dau, beste batzuek be poz-aldiak izan dagiezan.

Aldraka egindako ibillaldiagaz, Jose Migel Etxabarri uste onian geratu da. Orain beste batzuk be gogotsu ibil daitezala diño euren jokabide auzartekin. Guk, gero, bear izanen eran, geure erabagiak artuko ditugu Parisera, eroso eldu al izateko. Gizon jator baten erabagia dirudi, gauza onak ba gizartean banandu egin bear dira.

Illaren bederatzian, sarri oi eban lez, Migel zur ibili zan, burua aurre aldean ebala, ibillaldian jazo eitekenaren ardura. Eguneke ekiñaldia uste zan baiño gogor ta zaillagoa izan da. Jendea arin ibili da bularra zuzpeltu ta oiñeri bizkor eragiñez. Ta orrez gaiñera, aizea etsai legez izan genduan guri indarrak negurtu nairik. Ta Banestoko buruak asko sentidu eban Garmendia aldendu bearra ta bere anaiaren ezbearra. Prudenek neke aundiak izango ditu, baiña ondo agertu da ibillaldietako nekeak onartu ta aurrera egiten.

Garagarrillak amabi ta astelena. Biartik aurrera bakoitzak bere tokia izango dau. Luxemburgoko ordupekua aurrera ateraten aleginduko naz...

Migelen ustez lenengo astea ondo joan da, berari dagokion eran, azken orduko printzlariak

kontuan izanik. Krono eguna eldu da eta alegiñak egiteko gertu dago. Egia esan, ekiñaldi gogorra da aldatz gora bi gogorrekin. Bata bestearen arteko aldiak sortu leitekez, baiña Migelek arrokerizko berbarik ez dau nai erabili. Egunari eguneke arazoa bere gain izten dautso. Baiña Atarrabitarrak bakarreko egun orretan zerbait eskeini nai leuskio bere Indurain euskal izen ederrari. Ta egun onetan egiten dodanak, agertuko daust, urrengo datozen mendi ibillaldietan zelan jokatu bear dodan.

Bakarreko eguna eldu da. Askorentzat egun gogoangarria izango da. Bideak, mendiak eta lagunak arrituta geratuko dira ta bere leikide ta lasterka aurkako lagunak uste barik, auts eginda itzi ditu. Asi ta lasterrean burukoa bota eban ta aizea artzen aske doa lauak zear ta gora ta bera arrano baten antzera. Gaur zabaldu ete ditu Paris-ko atea...

Bugno, Breukink ta Rominger'ek gogor jokatu eben, baiña, Indurain danez goitik joan zan. Ona emen, Rominger'en esana... Emen bigarren lekuaren billa joan bear da... Egitada aundia izan da, baiña gizonak gizon izan bear dau ta Migelek ez dau burugabeko arrokeririk bota nai."

Chiappuci... Indurainen aurka ezer ezin egin dala, argi dago... Iru minutu galtzeko ustean egon naz ta bost galdu ditut... Ez nago konforme... Baiña ez dago dana bertan bera izteko asmotan. Iges, Luxenburgon jazo zana berbera, jazo da emen, baiña mendietan egiñalak egin bear ditut...

Batzuen eretxiz atea zabaldurik dagoz. Baiña Migel, naita barruan bere nai izatea asmatu, azalez, zur agertzen da... Etsai gogorrek ikusten ditu.

Bugno... Utsa noz emongo dauan zain nago... Indurain gaur artean indartsuegia dan arren, ez dot atzerarik egin nai. Ez noa bigarren izatearen billa. Al dala irabaztea nai neuke. Ona emen, Bugno aundiaren amesak. Baiña amesak ames, sarri, geratzen dira, oraingo onetan geratu diran legez.

EUSKALDUNAK

Alak eta alegiñak egingo ditue Migelen indarrak negurtzen ta orrez gaiñera al bada, ondatzen, baiña ezin dabe menperatu gizon ori. Bere aldetik ixillean, alegiñak egingo ditu Atarrabitarren guraria, aurrera, ateraten. Migel Indurain ain indartsu dagon ezkeroz, ez dau ezertariko buru-miñik izango ariñeketa irabazi al izateko.

Atarrabitarrak euren anaiari betirako omen bat eskeiñi nai dautse. Izan bere, munduan ezagutu da Atarrabitarren erria Migelen bidez. Indurainek ba, bere odolaren patxadeaz agertu dan aringararako erreztasuna ta zelako gizon-gizontsu arteko semea dan. Gauza egokia da erriko seme ospetsu bat goratzea ta geroen gerorako arri baten irudiaz ezilkortuta iztea.

Artarrabia bere asmo ederretan dabil eta semea Tourmaleteko aldatzak gora Kominger baiño segundu mordo eder bat atzerago. Era guztietako alegiñak egiten ditu ta gaiñera eldu danean, artu dauan egazkadeaz arranoa baiño bizkorrago, oiñeztarri baten antzera Romingerren aurrean agertzen da aldatz barrenean. Urregorritzko abiadea izan da ta agur Tourmalet beste ekitalde batera arte

Aurtengo ariñeketa aurrera doa ta gauza politak be entzuten dira. Zorionez ni, emen, nago diño Romingerrek ta ni barik gauza ikusgarririk ez litzateke izango... Egiz gizon onek, gogor, jokatu eban ta ibillaldiari bere jasa ta indarra emon eutsozan. Ori dala-ta, eskubidea eukala gauza politak esateko esan giñaike. Munduko bigarrena naz, Indurain da lenengoa ta gaiñerako guztiak, or dagoz poz pozik... Rominger.

Karrera amaitzeko azkenengo egunetan dagoz ta Migelek egun bakoitzari berea emoten dautso, nor nundik dabillen begiraturik, eguneko jardunaldiak ondo zaintzen ditu. Ta Jabier Murgialdaik be, onan, diño... Bakoitzaren jokaerak ez dot uste aldaketa aundirik izando dauanik. Indurainek bere lagun guztiei bildurra sartzen dautse ta bere gurrpillaren jarrai joan ezkeroko korfome dagoz.

Ta Migelek zer diño... Gure euskal napar onek bere jokoa nundik nora eroan argi jarrita dauka.

Bere gogo da Parisen irabazle izatea ta ortarako, gizonkiro, jokatu, lerketa ta arrokeri barik. Eguna gaiñean dago. Parisko Eliseos inguruak, aurrezaz, jendez beterik dagoz. Euren artean Bizkai, Gipuzkoa, Araba ta Napar jendea an dago euren bitxi eder izkuntza, dantza ta jolas euskaldunekin karrereai amaiera ospatsua emon nairik. Egiz bai, pozik, ospatu ebela, euskal abizen ederraren Tourreko garaitza. Aurrera mutillak...

PAULIN




IZUKERI AUNDIA

Gure "Zer" au irarkolan dagoala, jazokizun ikaragarri bat jazo da: York Barriko "Bikotxa" k eritxoena lurreratu dabez izu-zaleak, Islan'darrak, antza: millak ildakorak, millak zaurituak, galtzaite aundiak.

Ipar Ameriketarrak apena, bengantzea, eskatzen dabe. Oba litzake zuzentasuna. Islan'darrak bildurrez dagoz. Zer ikusteko ete gagoz gure mundu larri onetan?

Bakea bear dogu, zuzentasuna ta bakea. Ez apena edo bengantzarik.

Euskerazaleak



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO



kultura
sortzen dogu



kultura



BILBAO 700 • III. MILLENIUM

Sormena bultzatzen dogu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, barriak eta klasikoak, bear-bearrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.

Au da gure kultura.

www.bbk.es

200 pezeta (1,20 Euro)

bbk²